

DENON ESKOLA IZENENKO ARABAKO FEDERAZIOAREN AURKEZPENA EGIN DUTE GASTEIZEN

Sare publikoko guraso elkarteek konfederazioan bildu asmo dute

Denon Eskola izeneko federazioaren aurkezpen publikoa egin zuten atzo Gasteizen. Sare publikoko gurasoen elkartearen Arabako Federazioa da, sektoreko ikasle guztien %84 eta guraso elkartearen %89 biltzen dituen.

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

ARABAKO Federazioko bozera-maileek jakinarazi dutenaren arabera, aurten egitasmoetako bat Euskal Autonomia Erkidego-ko Konfederazioa eratzea izango da. Gaur egun federazio bakarra dago bai Araban eta baita Bizkaian ere; Gipuzkoan, berriz, bat egiteko prozesuan daude sare publikoko gurasoen elkarte batzuk. Era berean, Iparraldeko eta Nafarroako elkarteekin ere harremanetan daudela esan zuten.

Santa Gonzalezek eta Inaxio Eizagirrek Denon Eskola Arabako Federazioaren aurkezpena egin zuten atzo goizean. Orain arte Lehenengo Irakaskuntzan jardundako Herri Eskola eta Ertainetan aritutako Santo Tomas elkartearen eta ikastola publikoetako batek ere izan dela jakinarazi zuten. «Urrezko amaiera eman diogu gurasoen elkarteetan egin dako hogeitak urteko ibilbideari», esan zuten.

Federazioak eta konfederazioa bera eratzearen garrantzia handia dela uste dute, besteak beste, Administrazioarekin hitz egiteko orduan euskal eskola publikoaren alde lan egiteko. «Eusko Jaur-laritzak askoz ere apustu sendoa egin behar du irakaskuntza publikoan inbertitzeko orduan, ezin baitaiteke egon Hezkuntza Saila zuzentzen duen taldearen nahieraren menpe», adierazi zuten.

Denon Eskolak «eskola euskaldun, autonomo eta gestio demokratikoa» defendituko du. Euskal eskola kalitatezkoa izatea da jomuga nagusia, eta, orobat, au-



Denon Eskola Federazioko arduradunak atzoko aurkezpenean

OLALDE

rroneko helburuetako bat du «hezkuntza publikoko zentroetako ikasleen gurasoen zein tutoreen ikastetxeen funtzionamenduan erabateko partehartzea izan dezaten eskubidea bermatzea».

Bestalde, «aukera berdintasuna nahiz adierazpen askatasuna ziurtatu, euskal kulturaren errotutako irakaskuntza erakutsi eta hizkuntza ofizial bien ezagutza eta erabilera bermatuko dituen derrigorrezko eskolatzeari lortzeko» lan egingo dutela iragarri dute.

Irakasleen euskalduntzeari dagokionez, Lehenengo Hezkuntzan plantilla behar bestekoa bada ere, Ertainetan hizkuntz birziklapenarekin jarraitu beharra dagoela esan zuten. Halaber, erreforma dela eta, zentroen ego-kitzapena «bikortzeko» eskatu zuten.

Garraioa eta jantokia alor eztabaidagarriak izan ohi dira. Jantokiari buruz, Ertainetan abian jarritako konbenioa «azkartzea» nahi dute, eta Lehenengo Hezkuntzari dagokionez ere bai; garraioan, berriz, sistema hobetze-

ko eskaera egin dute, batez ere herrietako ikasleentzat.

Euskal Eskola Publikoaren festa martxoaren 29an • Denon Eskola-ko ordezkariak jakinarazi zuten Euskal Eskola Publikoaren festa datorren martxoaren 29an egingo dela, Bilboko Etxebarria parkean; eta 1999an Araban izango dela. Horrezaz gainera, beste zenbait ekitaldi antolatu ditu, adibidez, gurasoentzako formazio ikastaroak edo hezkuntzari buruzko argibide bulegoa, Gasteizko Florida kaleko 62 zenbakian. X

UAK batzorde bat nahi du euskaltegiak ikertzeko

Santurtziko Partidu Popularrak eskatu du Udalak herriko AEKren materiala kontrola dezala

L.K.G. / Gasteiz

UNIDAD ALAVESAK batzorde parlamentario baten eratzea bul-tzatuko du euskaltegiaren erabil-tzen den material didaktikoa, egi-tzen diren ariketak eta abarrak ikertzeko. Oraingoan, PSE-EEri, PPri eta IUri proposatu diela jakinarazi du Javier Moraza UAKo parlamentarioak Gasteizen atzo eskaintako prentsaurrekoan.

Era berean, HABEk Donostia-ko Amara Berri euskaltegiaren auzian izandako jarrera kritikatu zuten, UAKo bozeramailearen iru-diko, «ez baita nahikoa izan». AEK-ko arduradunen erreakzioaz, berriz, zera esan zuten: «Hemen inor ez dabil euskararen aurka erasoka, eta, hain zuzen,

AEK-ko ordezkarien jokabidea da euskarari benetan kalte egiten diona». Bestetik, Amara Berrin erabilitako materialaren antzeko zerbait erabiltzen duen beste edozein euskaltegiari dirulaguntza kentzeko exijitu zuten.

Morazaren arabera, «azken egunetan euskaltegi batzuen inguruan salatutako antzeko beste kasu batzuk gertatuko dira aurrerantzean». Salatzeko moduko beste material batzuk badaudela esan zuten, baina euskaltegi-tako ikasleak salaketa egiteko «beldur» direla erantsi zuten.

Parlamentario arabarrak hiru adibide eman zituen euskaltegien izaeraz ohartarazteko. IKA sareaz ari zela, euskaltegi intsumisioa deklaratu zela gogoratu zuten no-

raino dagoen «ideologizaturik» adierazteko; bigarrenik, IKAre test batzuetan txakur edo zipaio bezalako hitzak ageri direla komentatu zuten; azkenik, Herri Batasunak iazko martxoaren 7an deitutako greba orokorra zela eta, IKAK grebara atera edo ez ateratzeko borondatea edo hautu librea ez zuela errespetatu salatu zuten. «Ikasleak ez dira salatzen ausartzen, baina guk, politikariok, salatu egin beharra dauka-gu», deklaratu zuten.

Santurtziko PPk herriko AEK kontrolatzea proposatu du • Santurtziko PPk, bestalde, bertako Udaleko Gobernu Batzordeak herriko AEK-k euskaltegiaren erabiltzen den ikasmateriala azter de-

zan eskatu du eta, euskaltegiak neurria baztertuz gero, egoitza kentzeko.

Partidu Popularreko zinegotzien arabera, «frogatuta geratu da zenbait euskaltegiaren, horien artean AEKrenetan, ekintza bortitza eta terroristak egitera bul-tzatzen duen material didaktikoa ematen zaiela ikasleei».

Hori dela eta, Felix Velasco Santurtziko PPko bozeramaileak beharrezko iritzia dio Udalak noizean behin ikasmateriala eta ariketak aztertzea. AEK-k neurri hori baztertzen badu, «zerbait arraroa ezkutatzeko duten seinaleztat hartu beharko da eta Udalak kendu egin beharko dio AEKri euskara irakasteko erabiltzen duten egoitza publikoa». X

Itoizko lanak gelditzeari uko egin dio berriz Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak

Koordinakundeak erabakiaren aurkako helegitea aurkeztuko du Auzitegi Gorenean

Erredakzioa / Iruñea

MADRILGO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIAK berriz erabazteko erantzun dio Itoizko Koordinakundeak Itoizko urtegi-ko lanak gelditzeko egin eskatu eta atzo plazaratu autoan. Jaki-na denez, Auzitegiak Itoizko urtegi proiektuaren inguruko eraginaren deklarazioa be-lorik gabe utzi zuen 1997an ekainaren 30ean plazaratu epaian, Koordinakundeak egin salaketaren ondorioz. Es-tatuaren abokatuak eta Nafarroako Gobernuak erabaki horren aurkako helegitea aurkeztu zuten Espainiako Auzitegi Gorenean; izan ere, ingurugiro eraginaren deklarazio-rik gabe, ez dago herritarren egiterik.

Hori zela eta, Itoizko Koordinakundeak Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiari eskatu zion epaia behin-behineko gauzatzeko eta Itoizko presonera iraikitze lanak gelditzeko Auzitegi Gorenaren helegitea aurkeztu inguruko erabakia hartu. Koordinakundeak abokatuak argudiatu zuten bestela Auzitegi Gorenaren erabakia hartze-zuenerako kalte eginda izanen zela. Azaroaren 6an, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak auto baten bitartez erabaki zuten ez zitzuela lanak geldituko. Azaroaren 22an Koordinakundeak berriz eskatu zuten lanak gelditzeko, eta Auzitegiak berriz ezetz erantzun du atzo plazaratu autoan.

Koordinakundeak atzo helegitea iragarri zuen azken auto baten aurkako helegitea aurkeztuko duela, Auzitegi Gorenean. Iragarpen hori egitea gain, gogorarazi zuen Auzitegi Goreneko Administrazio Auzitegiaren hirugarren sektoreko hirugarren salak aztertuko duela bai Koordinakundearen azken helegitea bai Estatuaren abokatuak eta Nafarroako Gobernuak epaiaren kontrako aurkeztutakoa, «hain zuzen ere Itoizko urtegiaren proiektua baliorik gabe utzi zuten Entzutegi Nazionalaren epai berretsi zuten sala berberak». Itoizko Koordinakundeak abokatuaren arabera, «Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren azken autoak ez dauka inolako argudio juridikorik»; izan ere, besterik gabe aurreko autoan azaldutakoari eusteko diola azaltzen du. Halaber, urtegiaren aurkako abokatuak aburuz, «ulertezina da epaia berriro uko egin izana Itoizko urtegia iraikitze lanak gelditzeari». X